

Hitzaurrea

In: Lasa, Mikel: *Novela berria Hego Amerikan*, Mensajero, Bilbo, 1972: 7-21.

Mikel Lasa-k gertutu duen lan eder bonek baditu oso jakingarri diren hiru alderdi gutxienez:

1) Euskerak gora-bidean aurkitzen dituen oztopoak, asko eta handiak dira; poesia berrian langile ugari eta on asko baditu ere, ipui eta novelak eskatzen dituzten bide berrietarako, oraindik gordin, heldu gabe, aurkitzen da; batzuk (Mirande, Txillardegia, esate baterako) saio on-onak eginak dira; baina, hitz, imajina eta lankera edo estilo neurrian gaurko munduaren literatura mailan jartzeko kemenik ez du izan; eta gaurko munduan, gailen, iberoameriketarren literatura dugunez, honen lan ederrenetako batzuk aztertzeari oso beharrezkoa deritzat; batez ere, kritika hau euskeraz egina bada.

2) Bestetik, harrigarria da itsas-haruntzko herri berri horiek herri-kultura lantzeko izan dituzten oztopo batzuk guk ditugunetatik hain hurbil egotea; herri-neurriz berdinak ez badira ere, bertagotik ikusten ahalegintzen bagara, badute herri arteko jokabideek beti kidetasun nabarmen bat: gizonaren neurria, eta iberoameriketar horien lanak aztertuz goazen bezala aurkituko ditugu geure lanbide batzuk ere; hontan lagundu nahi nioke Mikeli, hitzaurre hau bide dudala: honek idazleei banaka egin dien azterketa sakonaren ondoan, begirada osoko perspektiba-bidetxur bat jarri.

3) Ondo idatzi eta irakurri nahi duen guztiak behar du ikasi idazle puntakoenen lanetan ikusten; errazki, agerian, axalean ikusten diren gauzez beste, izaten da idaz-lan sakonetan (bai hizkuntza aldetik, bai lankera aldetik eta baita formaz ere) ezkutuan edo hain erraz ikusteko ez den aberastasunik; azterketa zail hau egiteko gai dena, ez da edozein: lehen, literaturako ikasketak egin behar ditu berak, egile garaienak ondo ezagutu eta aztertzen ikasi behar du, eta jakintza hutsa den honetaz gainera sorraldiak berekiko dituen misterioak ikusteko behar den gaitasun bitxi bat: sendimena, sensibilitadea; eta hauxe esan nahi dut hasiera-hasieratik Mikel Lasa-z: batetik, kritika lanetarako oso jantzia eta adimenduna dela, eta, bestetik, bera sortzaile denez, sensibilitade handiko gizona dela.

Nik esateak ez du baliorik; liburu hau irakurtzen duenak, berez ikusiko du.

Koloniar literaturatik, aberrikoiera

Espaniar batzuek (Guillermo de Torre-k, *Claves de la literatura hispano-americana*-n, esate baterako) beren herria aitatzten dute ibero-ameriketarrek egin duten literaturaren iturri nagusitzat.

Neurri batean halaxe da; baina, osora begiratuta, ez da baiezko hau hain egia gertatzen.

Egia da, noski, kolonia garaian sortuak direla Ameriketako literatura bide batzuk; gehienbat Europatik Ameriketara eramaten zituzten liburuak, eta han bertan eta hemengo moldeari lotuta egiten zen zerbait-gutxik osatzen zuten orduko literatura. Gaur, garai hartakoa, geurok esperientziaz dakigunetik neurtzen badugu, erraza da orain dela berrehun edo hirurehun urte koloniajea nolakoa izango zen sumatzea: bai Elizak eta baita orduko beste aginte mailek ere, ondo hetsita gordetzen zituzten jakintza-bideko iturriak: Unibersitatea, ikastola eta liburuak. Hala ere, aitatu beharra dago, herri haietako hizkuntzak zanpatu eta baztertu ondoren eskaini zieten (eta nagusitzeko behar zutelako) ordeko zerbait: ordurako idatziago eta landuago zegoen hizkuntza: espainera batzuentzat eta portugalerara besteentzat.

Baina, egitan *ameriketarra* bezala ezagutzen dugun eta den literatura, Askatasuna lortu ondoren herri askatuek berek sortu zutena izan zen.

Noski, gaur ezagutzen dugun literatura berezi hau, ez zen askatasunarekin kolpetik sortu, Lehendabizi, ohitura-idazleak (eta lekukoak) hasi ziren sortzen, eta gero, lekuan lekuko esperientziak sakonduz eta elkartzuz joan ziren neurri berean, hasi zen herri bakoitzean literatura aberrikoa edo nazionala jaiotzen. Hala, aberri bakoitzeko literatura, berak zituen sozial arazoekin kutsatu zen noski, eta beren artean ezberdintasun batzuk sortuz joan ziren: herri batzutan indioen kultura eta zituzten sozial prolemak beren bideak eginez joan ziren bezala, beste zenbaitetan beltzek eraginda sortu ziren; eta klimaz eta lur-ondasunez ere ez ziren herri guztiak berdinak; hala ere, herrialde desberdinetan Askatasunak sor erazi zuen *epika* (herri bakoitza politika bideetan osatuz joan zen neurrikoa) eta *denuntzi-literatura* aldi berdintsuan hasi ziren, eta honek txertatu zien ameriketar berriei elkar erazten zituen berezitasun bat; baina literatura hau zainetatik Europako moldeetara lotua agertzen zen arartean.

Eta halaxe galdetzen zuen Unamunok 1905ean, ea zergatik ameriketar idazleek, europear irakurleentzat eta Europaz idatzi beharrean, berenak ziren herri-berriez ez zuten idazten.

Egitan gaur begiratzen badiegu (Isaacs Kolonbiarraren *Maria* liburuan, esate baterako), pertsonaiak herrikoak dira, bertakoak, kolonbiar mestizoak; baina *europear begiz* ikusiak izan direla nabarmen da. Badihoa, hala ere, herri horietako idazlea heziz; eta bere buruaz jabetzen hasten den neurrian ekiten dio min egiten diona salatzeari: bizi-bide gogorra, inguratzen duen naturalezaren beldurgarria, diru-gosez kanpotarrek egiten dizkieten zapalketak eta herri berean jaiotako diktadoreek leporatzen dizkieten karga latz eta odoltsuak. Horiek bait dira kezkatzen dituen gai nagusienak. Askotan *tremendista* (eta demagogo) bezala jotzen dituzte europarrek iberio-ameriketako idazleak; eta ez da egia. Egia dena da, hango mundua handia eta askotan basatia eta gogorra dela; batzuetan irudimenak asma lezakeana baino tantai eta ikaragarriagoa. «La novela latino-americana –dio Carlos Fuentes-ek– ha sido más historia que imaginación, y esto por varios motivos; uno de ellos es el hecho de que en nuestros países la realidad es más fantástica que la imaginación. De Cortés y Pizarro a Trujillo, a Perón, la imaginación se hace carne en la historia: aquéllos son personajes de epopeya, y éstos parecen de ficción científica. Dominados políticamente por hombres fuertes, nuestros países también se han visto dominados por una naturaleza gigantesca, devoradora, inhumana. El dominio del tirano y el dominio de la naturaleza han sido los temas de

nuestra novela tradicional». Hala, inguru, gizon eta diru basatiez lotuta eta zanpatuta zeuden herri horiek, ez zuten idaz-teknikaz eta itxura polit eta txukuna erakustez kezkatzeko astirik izan. Txorakeria hau (gizonak, onak, eta neskatxak, masail-gorri birtutedunak), guk, euskaldunok, egin dugu oso maiz; baina gure oharreza mila aldiz okerragoa da ibero-ameriketarren demagogia antzeko tremendismoa baino.

Nonbaitetik hasi behar zuen idazbidez sortzen den egiak.

Noski, Afrika, Asia eta Ameriketako jendea bera estudioak eta literatura egiten hasi den bezain laster, lurrandi horietako herriez Europan genduen irudia aldatzen hasi zaigu. Historiarekin gertatu den bezala; Ingalaterrak Indiaz egin ohi zituen historia-liburuak indiarrek berak idazten hasi diren bezain laster, Indiako historia aldatu egin da.

Eta Ingalaterra ez da okerrena.

Gero, beste europear idazleak bezala, ibero-ameriketar idazleak, sikoanaliaren teknika bidez, pertsonaiak aztertzen hasi direnean ere, nabari da berezitasuna: Kafka, Proust eta Joyce-k erakutsitako pertsonaien deskripzioak egiteko, teknika erabiltzen hasten direnean, europear eta ameriketarren artean dagoen aldea berehala ikusten da: nahiz eta hizkuntza bera erabili, indioaren eta beltzaren eta xarneguaeren buruak, nork bere gupil berezi bat ematen dio.

Hala, hontara heldu denean izan du, berez eta ausarki eta nagusiki zerbait esateko indarra.

Literatura berri berezia

Germán Arciniegas idazle kolonbiarrak aspaldi esan zuen, ibero-ameriketarren lan nagusia, hainbeste herri osatzen duen artxipielaogarekin kontinente bat osatzea dela. Egia esan, kultura aldetik baino politika eta ekonomia aldetik daude herri horiek sakabanatuago; hizkuntza dute (batetik espainia-ameriketarrek osatzen duten munduan eta bestetik portuges-ameriketarrek Brasil tantaian) lokarri, eta hamaika ohitura eta tradizio ere bai; baina, lokarri horietaz gainera, badute beste bat: ekonomia eta politika alderditik elkartuta bakarrik salbatuko diren konzientzia.

Berjabetasuna eta elkar-sentitze hau nahikoa ote da ibero-ameriketarak *literatura bat* sortu duela esateko?

Octavio Paz mejikoarrak (*Literatura de Fundación*-en hitz-aurrean) dionez, «Literaturak ez du mugarik: Chileko arazoak ez dira Kolonbiakoak, eta Bolibiako indio batek Antillas-eko beltz batekin ez du zerikusi handirik; baina ezberdin dituzten inguru, etnia eta beste alde batzuk ez dute kultura-bidez elkartzen dituen lokarririk etentzen. Elkartasuna ez bait da batasuna, uniformidadea».

Hala ikusten du munduak, elkartua, elkarrekin egina bezala, ibero-ameriketarren literatura berria.

Egia esan, kanpotik begira dagoen munduari bost axola zaio geografia sozio-politikoak. Badaki, Bolibia edo Venezuela edo Argentina edo Chile Hego-Ameriketan, eta lurrandi horrek dirudien eta den zaku handi hortan daudela. Ez da asko, baina, egitan, badute berri guzti horiek oraindik, geografiaren elkarte nabarmen honetaz gainera, eta elkarrekin duten hizkuntzaz beste, espainiarrek txertatutako eta mundu guztiarentzat

agerian dagoen giza-bide eta kultura eta mundua ikusteko halako bide berezi bat; eta, ekonomia eta politika aldetik ere, hor dute aspaldi honetan, aurrez-aurre, USArein errainu tantai eta, batzutan, beltza.

Badute, ba, elkar jokatzeko arrazoin franko, eta aitzekia ere bai,

Honetxegatik, ez da harritzekoa, literaturaren azken eboluzio hontan, herri horiek, gutxi gora-behera, elkarrekin joatea; edo, bestela, hobeto esateko: herri arteko influentziaz kutsatzeko bideak gertu daudenez, giro eta sentipen batzuk erraz zabaltzea.

Hala, literaturaren lekuan-lekuko errealismotik eta *lurreko novela* deitzen zaion joeratik, *huriko novela* osmosis erraz batetan joan diren bidetik hasi dira literatura formari sikologia eta arte bide berriak erasten. «Asturias edo Borges-ekin», dio Carlos Fuentes idazle mejikoarrak, hasi zen gure herrietan fabulako edo asmakeriazko literatura berri bat sortzen; eta Huidobro, Vallejo, Neruda eta Octavio Paz-ek poesian egin zutena: *ikusten zutena* esan beharrean, *personalki sentitzen zutena* esaten hasi. Emir Rodríguez Monegal, kritikoa uruguaiarrak, Borges-i buruz diona bezala: honen asmakeriak ez dira egitan denaren edo errealitatearen metaforak besterik, eta egile honek asmatzen dituen gertaerak errealitatean edaten duten iturri berberatik sortzen dira. Bai batzuk eta bai bestek (batzuk bide batetik eta bestek bestetik), denak bizitze bera erakusten ahalegintzen dira. Gaurko gizonaren egoeran, errealismoaren bidez gauzei izen orokorrez deituz bakarrik, ez dago gizonaren bizikera konplejo hau erakusteko biderik; gertaera sakon eta ezkutuak adierazteko, erreminta kamutsegiak dira hitz soilak. (Aurreraxeago Gabriel Garcia Marquez-ek emango digu adibide eder bat). Gizona *gauza* berri eta ezkutu asko aurkitzen ari denez, gaurko munduan sentitzen ari den esperientzia konplejo hau ezin du bide zaharretatik erakutsi; hala, esperientzia konplejoago egiten ari den neurrian, gizonaren hizkuntza aberastuz eta zailduz joango da, noski.

Ibero-ameriketarrek, ipui eta novela bidez, darabilkiten komunikazio bidez honi, «realismo mágico» deitzen diote: «errealismo miragarria».

Irudi bidez josiz joaten den hitz-bide hau, egia-ez-balitz-bezalako zerbaitez kutsatutakoa eta oso bakoitzarena edo subjektiboa da. Ez da oraintxe asmatua. Ernst Theodor Wilhelm Hoffmann (1776-1822) idazle alemana izan zen lur-zabalako literaturan mundu berri hau sortu zuena: egia, izatasuna, gehienetan ohi-ez-den-bezalakoa, *miragarria* da. Idazle honek sortu zuen mundua, beste norbaitek berriro zuen gero: Edgar Allan Poe-k (1809-1849); eta literaturan azalekoari ematen zitzaion garrantzia barrukoari emanez, ondore beldurgarriak sortzen hasi zen. Hemendik hasten dira Iberoameriketako idazle batzuk lanean, eta ameriketar kutsu berezia txertatzen ahalegintzen dira: Kolonbiako José Eustasio Rivera (1888-1928) *La Vorágine* novelarekin, uruguaiar Horacio Quiroga (1878-1937) bere ipui-liburuekin: *El salvaje* (1920), *Anaconda* (1921), *El desierto* (1924), *Los desterrados* (1926) eta *Más allá* (1935). Beste batzuek, berriz, jorjika eta deduzio edo misteriozko gertaerak sortuaz, bide bereziak sortu dituzte: hemen daude Jorge Luis Borges argentinarra (1899) bere *Ficciones* (1944) eta *Aleph* (1949) ipui-liburuekin, Julio Cortázar (1916) bere *El bestiario* (1951) ipui-liburuarekin, eta Filisberto Hernández (1902), uruguaiarra, *Nadie encendió las lámparas* (1947) ipui-liburuarekin.

Egia da *Los de abajo* (Azuela, mejikoarra), *La vorágine* (Rivera, Kolonbiarra) eta *Doña Bárbara* (Gallegos, venezolarra) Amerika nolako den erakusten duten novelarik ederrenetakoak direla; baina idazle trebe eta sakon horien hizkuntzak ezin litzake gaurko konplexidade guztiak jaso, eta era berri-berrietara igoz joan da; gaurko idazleek ulertu dute egiaren ezaguera eta komunikazio bideak estetika bidez ibiliko dituztela egokien; eta, hala, gauzak kontatzeko historia eta sozial kontzientzia batetan jarri eta bide garbiagoak eta sakonagoak aurkitzeko asmotan ari dira aldi berri hontatik lanean.

Harritzekoa da, baina lan zail hau egiteko, ibero-ameriketako idazle gehienak, beren herrian murgilduta ari beharrean, herritik kanpora bizi dira. Zergatik ote?

Vargas Llosa-k haxe idatzi du gai hontaz («Literatura y exilio», *Papel Literario de El Nacional*, Caracas, 1968): «Ni, Paris, Londres eta Erromako giroa bizigarriagoa, pizkarriagoa delako bizi naiz hemen, diote batzuek; edo, urrundik nere herriaren egoeraren perspektiba osoagoa izateko modua dudalako dela diote besteek; edo baita: gogoak ematen didalako ere (beren gogoz herbesteratu direnengatik ari naiz, ez politikaz herbesteratzera behartuak izan direnez). Egitan, erantzun guztiak batean bil genitzake: herbesteran hobeto idazten dudalako; *hobeto*, esan nahi dut soziolojia aldetik, ez estetika aldetik; esan nahi dut, lasaitasun gehiagorekin edo uste gehiagorekin».

Baina, hontaz eta estiloaz pentsatzen-edo dio Miguel Angel Asturias-ek belaun berriko idazleez («Miguel Ángel Asturias», *Papel Literario de El Nacional*, 1966): «Nik ikusten dieten arrisku bakarra, haxe da, gure gaurko egoeratik gehiegi urrun ditezke»,

Nolabait joera eta gizon horietako baten pentsa-bideak erakusteko, idazle ezagunenetako bat ekarri nahi dut honera.

Gabriel García Márquez

Beste batek, on-onak diren idazle ameriketarren 30 edo 35tik, beste bat aukera lezake, noski, Hogeita eta hamaika dira *Visión* (13-5-66) aldizkariak aukeratzen dituenak (60 liburu onenen egileak) eta hemen erreferentzia bezala ematea ongarri delakoan ematen ditut. Ohar *txiki* bi: egile biziak bakarrik aitatzen dira sail hontan, eta 1966ean Gallegos artean bizi zen; bestetik, oso ona den, eta Lasa-k aukeratu duen, Joao Guimaraes Rosa idazle brasildarra ez zen orain dela bost urte ezaguna, eta ez dut hemen aitatzen.

CIRO ALEGRIA (Perú): *La serpiente de oro* (1935) *Los perros hambrientos* (1938), *El mundo es ancho y ajeno* (1943),

JORGE AMADO (Brasil): *Tierra del sin fin* (1943), *Gabriel, clavel y canela* (1960).

MIGUEL ANGEL ASTURIAS (Guatemala): *El señor presidente* (1946), *Viento fuerte* (1950), *Mulata de tal* (1963).

MARIO BENEDETTI (Uruguay): *La tregua*, *Gracias por el fuego*.

JORGE LUIS BORGES (Argentina): *Ficciones* (1945), *El Aleph* (1949).

SILVINA BULLRICH (Argentina): *Un momento muy largo*, *Los burgueses*.

EDUARDO CABALLERO CALDERÓN (Colombia): *Cristo de espaldas*, *Siervo sin tierra*.

ALEJO CARPENTIER (Cuba): *Los pasos perdidos* (1953), *El siglo de las luces*, *Guerra del tiempo*.

JULIO CORTAZAR (Argentina): *Rayuela* (1963), *Los premios*.

JOSE DONOSO (Chile): *Coronación*, *El obscuro pájaro de la noche*.

JORGE EDWARDS (Chile): *El peso de la noche*.

CARLOS FUENTES (México): *La región más transparente*, *La muerte de Artemio Cruz* (1962).

ROMULO GALLEGOS (Venezuela): *Doña Bárbara* (1929), *Cártama* (1935).

GABRIEL GARCIA MARQUEZ (Colombia): *El Coronel no tiene quien le escriba*.

BEATRIZ GUIDO (Argentina): *La casa del ángel*, *El incendio y las vísperas* (1965).

MARTIN LUIS GUZMAN (México): *El águila y la serpiente* (1928).

JORGE ICAZA (Ecuador): *Huasipungo* (1934), *En las calles*, *El chulla Romero y Flores*.

VICENTE LEÑERO (México): *Los albañiles*, *Estudio Q* (1965).

EDUARDO MALLEA (Argentina): *La bahía del silencio*, *Fiesta en noviembre*.

CARLOS MARTINEZ MORENO (Uruguay): *Los aborígenes* (1965).

MANUEL MEJIA VALLEJO (Colombia): *Al pie de la ciudad* (1958), *El día señalado* (1963).

HECTOR A. MURENA (Argentina): *La fatalidad de los cuerpos*, *Las leyes de la noche*, *Los herederos de la promesa* (1965).

JUAN CARLOS ONETTI (Uruguay): *El astillero*, *Los adioses*.

AUGUSTO ROA BASTOS (Paraguay): *El trueno entre las hojas*.

JUAN RULFO (México): *El llano en llamas* (1953), *Pedro Páramo* (1955).

ERNESTO SABATO (Argentina): *El túnel* (1951), *Sobre héroes y tumbas* (1963).

ARTURO USLAR PIETRI (Venezuela): *Las lanzas coloradas*.

MARIO VARGAS LLOSA (Perú): *La ciudad y los perros* (1963), *La ciudad verde* (1965).

ERICO VERISSIMO (Brasil): *El tiempo y el viento*, *Los argonautas*, *El señor embajador* (1965).

AGUSTIN YAÑEZ (México): *Al filo del agua*.

MANUEL ZAPATA OLIVELLA (Colombia): *Detrás del rostro*.

Noski, Mikel Lasa-k ez du denak aztertzerik izan, eta beharrik ere ez du izan; egin duen aukera on-ona dela uste dut. Berak aukeratu dituen batzuk, berriz, geroztik irten dirá: esate baterako *La Casa Verde*; Gabriel García Márquez-ek ez zuen, ba, oraindik *Cien años de soledad* argitaratu; horregatik *El coronel no tiene quien le escriba* bakarrik aitatzen dute sail hontan.

Zer derizkiozu zeure buruari?, galdetu zion behin periodista batek nik aukeratu dudan iberoameriketar idazle honi («Conversaciones con Gabriel García Márquez», Armando Durán; *Revista Nacional de Cultura*, Caracas, 1968).

– Uste dut, hobia litzaidakeala hila egotea... Literaturan arrakastarako bokaziorik ez duen gizon bati gerta lekiokan okerrena, hau da: saltxitxak bezala saltzen den novela bat idaztea... Eta hauxe duzu neri gertatua, eta ez dut ikusgai edo espektakulo bat izan nahi.

Cien años de soledad-en sor-bideaz galdetu dionean, honela erantzun du:

– Nere novelan, konta ezin beste adiskide aitatzen dut, eta nere lagun minetik bakarrik argiratuko lukete aitatzen dudan fetxa bakoitza norbaiten urte-betetzeari dagokiona dela, eta nik aitatzen dudan personairen batek nere emaztearen izpiritu bera duela; eta novela irakurrita bakarrik argiratu ezin den horrelako mila gauza dut errealitateetik harturik. Harritu eta kezkatzen nauena, hau da: liburua agertuz gero, neronek aurkitu ditudan, gutxienez, 42 kontradizioetatik bat ere, inork ez duela ikusi; eta italierara itzuli zuenak aurkitu zituen sei huts handietatik bat ere inork ez duela harrapatu; nik ez ditut huts horiek zuzenduko aurrerakoan egingo diren irarpenetan; eta itzulpenetan ere ez; ez bait litzake zintzo jokatzeko izango.

– Ez ahal duzu zeure burua idazle konprometitutzat sentitzen?

– Ni jaio nintzen herria, USAko konpaini bananera batek eraikia izan zen. Eta nik uste dut, noizpait mundua sozialista izango dela; eta nahi dut izatea, eta zenbat eta lehen, hobe. Baina, badut, novela soziala deritzaion horretaz nere gibel-asmoa; munduaren zati bat bakarrik erakusten dutela bere egileek, berekoiegiak eta manikeistak direla, eta irakurlea munduaren eta bizitzaren ikuspegi zatitua ikustera kondenatzen dutela. Asmatzeko eta askatasuna mugatzen duen guztia, reaktionario da; eta idazlearen egin-behar erreboluzionarioa, berriz, ondo idaztea da.

– Nolakoa izango litzake zure ustez novelarik onena?

– Politika eta sozial arazoak kezkatzen denez gainera, egian eta errealitatearen barman sartzeko indarra duen novela; eta egia eta errealitatea azpikoz gora jarri, eta beste aldean nolakoa den erakusteko gai bada, oraindik hobe.

Eta errealitatea eta egia zer diren eta nola erakuts genitzakean periodistak galdetu dionean, honela esan du, eta nere ustez definizio ederra da literatura miragarri edo *mágica* zer den erakusteko: «Nik, zalantzarik gabe, dakidan gauza bakarra, hau da: *egia ez dela tomateen prezioan bukatzen*».

Cien años de soledad agertu arte, García Márquez idazle «realista izan zen; hala izan zen ipui luze bat (*Los funerales de mamá grande*) idatzi zuen arte; ipui hau izan da bi idazbide arteko bezala agertzen den teknikaz egina. Ipui hau, izen honekin berarekin irarria izan den zortzi ipuinez osatutako liburu batean ezagutzen dut nik (*La siesta del martes. Un día de estos, En este pueblo no hay ladrones, La prodigiosa tarde de Baltasar, La viuda de Montiel, Un día después del sábado, Rosas artificiales* eta, azkenik, *Los funerales de mamá grande* bera (Colección Índice, Editorial Sudamericana, Buenos Aires). García Márquez-ek, beste iberio-ameriketarren antzera, gaurko bere herriko giroa salatzen du; Asturias-ek *Hombres de maíz*-en hain egoki egin zuen bezala, baina errezago. *Cien años de soledad*-en egileak sortzen duen mundua, batetik denboratik kanpora eta bestetik denboran bertan errota balego bezelakoa da, fabula eta majiaz sortutako mundua, eta bide batez egiazkoa, egi-egiarekin mamitua eta osatua. Denbora hau pasa eta ihesi joan beharrean, bere inguruan jira-biraka gelditzen da, eta behin eta berriz datorren gurgil horren bitartez sortzen da pertsonaren eta familiaren elkar funditze eta bat izatea; hau bait da, labur esateko, liburuaren jomuga. Biblian bezala, *denbora* majikoa da, ez du kronolojiarekin zer ikusirik. Liburuan agertuz doazen Aureliano guztiak Aureliano batetan moldeztan dira, eta bata-bestearen hurren, eta batek besteari bizia erantsiko balio bezala, eta hemen, lurrean, betirako bizirik geratuko balitz bezalako zerbait adierazten duela dirudi.

Baina, hontaz Mikel Lasa-k egingo digu nagusiki bere azterketa.

Ondarrabian, 1971